

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezeroei dagokionez, ez dira izango azkenengo kontsumitzaileak, baizik eta gure produktua diseinuak direnez, handizkariei edota txikizkariei salduko dizkiegu. Hauek gaur egun martxan dauden enpresak dira, eta jaten diren edota biodegradagarriak diren mahai tresnak ekoizten dituzte, eta hauek erakargarriagoak izateko eta kontsumitzaile kopurua handitzeko, gure diseinuak aplikatuko dizkiete.

Bezero berriak erakartzeko, posta elektronikoaren bidez, haien web orrialdeetatik edota instagram bidez kontaktatuko dugu, ez gara saiatuko haiek gurekin kontaktatzea baizik eta guk haien enpresari gure zerbitzua eskainiko diegu.

Gure helburua ez da enpresei gure diseinuak saltzea eta listo, gure helburua haiekin lan egitea da denbora luze batean, horretarako, nahi duten enpreseei publizitate zerbitzu bat eskaintzen diegu. Zerbitzu hau hainbat era desberdinetan garatu dezakegu, honi buruz gure bezeroekin hitz egin beharko genuke. Adibidez enpresa hauek web orrialde bat badute, honen atal batean gure diseinuak daramaten produktuak iragarriko genituzke eta web orrialderik ez duten enpreseentzat, web orrialde bat sortu ahal genuke eta hau guk zuzendu.